

# PRACTICUM II – IIIko PROGRAMA GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA  
UPV/EHU



**2017-2018 IKASTURTEA:**

**Gizarte Hezkuntzako Practicum II eta IIIko tutoreak:**

Natalia Alonso, Elisabet Arrieta, Isabel Bartau, Jasone Cenoz, Joxe Jiménez, Amaia Mendizabal, Hilario Murua, Nerea Portu, Virginia Pérez-Sostoa, Elixabet Sáenz, Arantxa Uribe-Echevarria

**Koordinatzailea:** Hilario Murua

# PRACTICUM II – IIIKO PROGRAMA GIZARTE HEZKUNTZA

## HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA

### UPV/EHU

#### AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	3
2. PROFIL PROFESIONALA. EGITEKOAK ETA JARDUERA ARLOAK .....	3
3. PRACTICUM II ETA IIIAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK .....	3
4. AURREIKUSITAKO IKASKUNTZEN EMAITZAK .....	4
5. METODOLOGIA .....	4
5.1. LEHEN ATALA .....	4
5.2. BIGARREN ATALA.....	9
6. PRACTICUM II ETA IIIKO AZKEN MEMORIA.....	10
7. PRACTICUM II ETA IIIKO EBALUAZIOA .....	11
7.1. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA.....	12
7.2. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAKETA.....	12
8. KONTAKTU INTERESGARRIAK.....	13
9. PRACTICUMARI BURUZKO LEGEDIA.....	13

## 1. SARRERA

Practicuma funtsezko gaia da ikasketa planean. Haren bidez jarduera profesionalera hurbilduko da ikaslea, gizarte eta hezkuntza errealtatea ikusiz, behatuz, hausnartuz eta esku hartuz bere lanbidea izango denaren inguruan gogoeta eginez.

Practicum hau Gizarte Hezkuntzako Graduko laugarren ikasturteko lehen eta bigarren lauhilekoan egingo da eta 12 eta 18 ECTS kreditu ditu. Era berean, gradu horretako VII. Moduluaren barnean dago "Garapen profesionala eta gizarte hezkuntza jarduna" izenekoa.

Aurrez kontutan izan beharreko oharra:

- Ikasleek Practicumeko atal ezberdinetan sortzen diren ekintzak Eguneroko batean jaso behar dituzte.
- Practicumeko atal guztietan ikasleen presentzia behar beharrezkoa da

## 2. PROFIL PROFESIONALA, EGITEKOAK ETA JARDUERA ARLOAK

Gizartearen eta hezkuntzaren arloko profesionala da Gizarte Hezkuntzako graduduna, eta aldaketa prozesu sozio-hezitzaileak sortzen ditu. Batez ere harreman-tresnetatik abiatuta, gizarte - hezitzailearen egitekoa da pertsonen, taldeen, kolektiboen eta komunitatearen bizi baldintzak hobetzea, zailtasun eta desabantaila sozial handiko egoerei adi egonda.

Lanbide honetan garatzen diren egitekoen artean, aipatzekoak dira:

- Gizarte eta hezkuntza arloko plan, proiektu eta programak diseinatu, garatu eta ebaluatzea.
- Diseinaturiko jarduerak koordinatzea eta hezkuntza harremanak eta gizarte sareak bultzatuko dituzten testuinguruak sortzea.
- Taldeen eta baliabideen dinamizazioa, antolakuntza eta kudeaketa.
- Harreman enpatiko eta nabariak sortzea gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeetan.

Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea izan dezakeen edozein testuingurutan kokatuko da praktika ekintza.

## 3. PRACTICUM II eta IIIan GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

- Gizarte hezkuntzako testuinguruetan profesionalki esku-hartu, gai ezberdinetako teoria eta praktika oinarri direla, ikuspegi etiko eta deontologia profesionala errespetatuz.
- Hezkuntza ekintzaz arduratu, lanbidearen nortasunaren errekonozimendutik eta gizarte hezitzaileen funtzio profesionaletatik abiatuz
- Talde lanaren bitartez ezagupena sortu, gizarte hezkuntzaren lanbidearen izaera eta bete beharretaz aritu, ikerketa erabiliz eta praktikaren azterketan oinarrituz.
- Idatziz eta ahoz, eta arrazoiak erabiliz, gizarte hezitzaileen lan profesionalaren gogoetak eta erakundeen kultura ezberdinak jakinarazi.
- Gizarte-hezitzaile ekintzak diren proiektu eta programen plangintza egin, garatu eta ebaluatu, erreferentzia diren errealtate bateko diagnostikoen ondorioak eredu izanik.
- Proposamenak sortu, tresnak eta hezitzaileak diren lanabesak eraiki, hezitzaileak diren ibilbide, testuinguru eta baliabideak aberastu eta hobetzekotan.
- Jakintza alor-arteak eta erakunde barneko taldeetan lanean aritzeko gaitasuna

#### 4. AURREIKUSITAKO IKASKUNTZEN EMAITZAK

- Gizarte Hezkuntzaren esku-hartze eremuetan, ekintza profesionala argudiatuaren oinarri kontzeptualak eta metodologikoak erabili.
- Lanean ari diren talde edo kolektiboekin hezkuntza eta formakuntza beharrak modu kritiko eta erreflexiboan aztertu, genero ikuspegiaren analisia integratuz.
- Lanean ari diren talde edo kolektiboekin beraien beharren arabera eta desberdintasun irizpideak kontuan hartuz, akziozko proposamen espezifikokoak landu.
- Genero ikuspegia integratuz, lan eremuarekin bat datorren akziozko proiektua garatu eta ebaluatu modu kritiko eta zuhurrez.
- Ikertuak izan diren gizarte eta hezkuntza errealitatea aztertzeko beharrezkoak diren prozedura eta irizpideak erabiliz, informazio jasoketa sistematikoa diseinatu.
- Practicum II.an eta Practicum III.an aukeratutako edo izendatutako eremu profesionalean jarraitutako esku-hartze prozesuaren azalpenezko memoriak landu.

#### 5. METODOLOGIA

Gizarte Hezkuntzako Practicum II eta IIIak 30 kreditu aurreikusten ditu: lehen 12ak lehen lauhilabeteetan eta 18 bigarreanean garatuko direnak.

Practicum bakar bat bezala uler daiteke eta hurrengo atalak ditu:

- **0 Atala:** Gizarte Hezkuntzako 3 mailako bigarren lau hilabeteetan burutu behar diren ekintzak, alegia aurreko ikasturtean egindakoak. Garatu beharreko eginkizunak:

- Practicumeko aurkezpena
- Praktiketako Zentroak aukeratzeko Orientazio Saioa

Saio horiekiko asistentzia derrigorrezkoa da eta lan honi eskainitako denbora Practicum II-IIIko lehen fasean kontatuko da.

- Practicum II-IIIko **Lehen Atala:** Zentroetara joan aurretik Fakultatean egin behar diren eginkizun presentzialak (ikus 8.1)
- Practicum II-IIIko **Bigarren Atala:** Practicumaren sarrera eta garapena zentroetan eta Fakultatean egin beharreko mintegiak (ikus 8.2)

##### **5.1. PRACTICUM II ETA IIIKO LEHEN ATALA FAKULTATEAN**

(2 kreditu ECTS= 50 ordu: 35 ordu aurrez aurrekoak eta 15 ordu bestelakoak)

Fakultatean garatuko da Irailaren 12tik 23ra bitarte. Ikaslea laugarren mailako Practicumean kokatzea, prestakuntza-aldi horretako prestakuntza-jardueretan eta zereginetan izan dezakeen teilakapena bideratzea, eta praktiketako prozesua kokatzeko eta aztertzeko egokiak diren ikaskuntza-tresnak zehazten laguntzea.

Tituluko laugarren mailako practicumak oinarri izan behar dituen alderdi teorikoak, testuinguruarenak, instrumentalak eta bizipenenak zehaztea du xede. Metodologia aktiboan bidez ekingo zaie aurretiko esperientzia berrikusteari, praktikak egingo diren erakundeetan esparruetan alde aurretik kokatzeari, eta horretarako funtsezko alderdi teoriko-praktikoei.

Zentzu formatiboa eta ikasketa esanguratsua sustatzeko, lehen atal honi dagozkion ordu batzuk tutoreekin egingo diren mintegietarako eta lehen bileratarako erabiliko dira. Gainera, atal honetan dauden zenbait eduki zeharka garatuko dira, beti ikaslea bere praktiketako zentroan egokitu ondoren.

**Asistentzia derrigorrezkoa da eta atal honetako eginkizunak Practicum**

**lako balorazioan sartzen dira.**

## **1. JARDUERA**

### **VII. MODULO KO AURKEZPEN A: "GARAPEN PROFESIONAL A ETA GIZARTE HEZKUNTZA JARDUNA"**

Goizeko Saioa (Irailak, 11, 11etatik 14etara)

1. Gaitasunak eta VII. Moduluan aurreikusitako ikaskuntzen emaitzak. Antolaketa orokorra eta VII. Moduluko gaiak: hautazko irakasgaiak, Practicum II eta III eta Gradu Amaierako Lana (GRAL).

2. GRALaren aurkezpena

- 2.1. Xedea eta helburuak
- 2.2. Inskripzioa eta deialdiak
- 2.3. Gaiak, lan lerroak eta aukeratze prozedura
- 2.4. Lanaren ibilbidea
- 2.5. Baldintzak eta defentsarako aurkezpena
- 2.6. GRALaren ebaluazioa

3. Practicumaren egitaraua

- 3.1. Practicum II eta IIIko egitaraua: Antolaketa eta bete beharreko ekimenak.
  - 3.1.1. Lehen Atala
  - 3.1.2. Bigarren Atala
- 3.2. Ikasleen konpromisoa eta zentroekin harremanetan jartzeko protokoloa
- 3.3. Indarrean dagoen araudia eta bete beharreko eranskinak
- 3.4. Zentro eta tutoreen esleipena

#### **Helburua:**

- Modulu VIIa osatzen duten ekintzak, zereginak eta gaiak aurkeztu ikaslegoa kokatu dadin: dagozkion irakasgaiak, Practicum II eta III, eta GRAL.

#### **Metodologia:**

- Gaitasunak, aurreikusitako ikaskuntzen emaitzak eta GRALI inguruko eztabaida.
- Practicum II eta IIIren inguruko berraztertze, iritzi eta eztabaidak

#### **Aurkeztu beharreko lehen dokumentua:**

- Saioan lortutako informazioa idatziz eman behar da, honako hauek jasoz: esanguratsuak diren gaiak, hausnarketarako lerroak, sortutako ondorioak.
- **Lehen atal honetan sortutako materiala Mintegiko lehenengo saioan tutoreari aurkeztuko zaio.**

**2. JARDUERA:**  
**PRACTICUM II eta III INGURUKO IGURIKAPENAK**

**3. JARDUERA:**  
**IKASLEEN TESTIGANTZAK**

**4. JARDUERA:**  
**ROL PROFESIONALA**

Goizeko Saioa (9etatik 14etara, Irailak, 15)

**Helburuak:**

- Laugarren urteko Practicumaz zer espero den aztertu eta hausnartu
- Rol profesionala (gainontzekoekin lan egiteko orduan, profesional bezala besteak eta bere burua ikusi, gizarte eta etika ikuspegitik).
- Ikasleen testigantzen ondorioak eraiki
- Saioen ondoren aldeztu aurretik pentsatutakoa berrantolatu eta espero diren aukerak hobeto egokitu

**Metodologia:**

- Practicum lan izandako esperientzia berrikusi
- Banakako lana eta taldekako lan dinamikak aukerak lantzeko
- Ikasle testigantzen aurkezpena
- Edukien bilketa eta konparaketa

**Aurkeztu beharreko dokumentua:**

- Ikasle bakoitzak lan saio honetan landutakoaren zentzu pertsonalaren jasotze idatzia.

**5. JARDUERA**  
**PRAKTIKETAKO ZENTROETAN KOKAPENA**

**Lan ez-presentziala:**

- Praktiketako zentrozen informazioaren bilaketa

**Aurkeztu beharreko dokumentua:**

- Praktika zentruaren inguruan aurkitutako informazioaren idatzia

**6. JARDUERA**  
**PRACTICUM II eta IIIIRA EGOKITUTAKO TRESNA METODOLOGIKOEN BERRERAIKETZEA**

Goizeko Saioa (9etatik 11etara, Irailak, 18)

**Helburuak.**

- Informazioa jasotzeko moduz jabetu eta praktiken hausnarketarako duten garrantziaz ohartu.
- Teoria eta praktikaren arteko erlazioaren ulermena eta argudioak lantzea

**Metodologia:**

- Saioaren zentzuaren aurkezpena.
- Idazkuntza, egunerokoa eta pasarte kritikoaren zentzua
  - Ikusentzunezko batean oinarrituz idazkuntza pertsonala
  - Gure idazkeraren talde azterketa.
  - Idazkuntza moten aurkezpena: deskribapena, narrazioa eta interpretazio
- Teoria/Praktika erlazioa

**Aurkeztu beharreko dokumentua:**

Lan saioko laburpena edozein baliabidetan aurkeztua (papera, argazkiak, bideoa, plastika...): saioan jasotako eta nor berarentzat esanguratsuak diren atalen bilduma.

**7. JARDUERA****GIZARTE ZERBITZUEN ESKUTITZAREN AURKEZPENA EAEn**

Goizeko Saioa (11etatik 13etara, Irailak, 18)

**Helburua:**

- Gizarte Zerbitzuen Eskutitza ezagutzea

**Metodologia:**

- Gipuzkoako Gizarte Hezitzaileek eskutitzaren aurkezpena egingo dute

**Aurkeztu beharreko dokumentua:**

- Lan saio honetan jasotakoa ikasle bakoitzak txosten batean idatziko du.

**8. JARDUERA****GIZARTE HEZKUNTZAREN PRAKTIKEN JARDUNALDIA: ARLOAK ETA ZENTRUAK****Helburuak:**

- Gizarte hezitzailearen esku-hartze arloen ikuspegia zabaltzea
  - Gizatalde zehatzen inguruko orientabide praktikoak ezagutzea
- Aurkeztu diren zentruen arteko zentzu hezitzaile amankomuna eta berezitasunak eraiki

**Metodologia:**

- Zentruen eta erakundearen aurkezpenak
- Egoeren kontrastea

**Aurkeztu beharreko dokumentua:**

- Jardunaldi honen ondorioak eta eraikitako ikuspegi berrien bilduma (galderak, abiapuntuak,...) idatzia

PRACTICUM II eta III: EGINKIZUNEN KRONOGRAMA					
EGUNA	ORDUA	LEKUA	JARDUERA	IRAKASLEA	
Irailak, 11	11:00-14:00	0.6 gela	1. VII. Moduluko aurkezpena: "Garapen Profesionala eta Gizarte Hezkuntza Jarduna"	Elixabet Arrieta Maggie Bullen Joxi Imaz	
				<b>ERDERAZ</b>	<b>EUSKARAZ</b>
Irailak, 15	09:00-10:00	Gela 0.5 (erd.) Gela 2.7 (eusk.)	2. Practicum II eta III inguruko igurikapenak	Virginia Pérez-Sostoa Arantxa Uribe- Echevarria	Joxe Jimenez Natalia Alonso
	10:00-11:00		3. Ikasleen testigantzak		
	11:30-12:30		4. Rol profesionala		
	Ez presentziala		5. Praktiketako zentroetan kokapena		
Irailak, 18	09:00-10:30	Gela 0.4 (erd.) Gela 2.7 (eusk.)	6. Egokitutako tresna metodologikoen berreraiketzea	Isabel Bartau Hilario Murua	Amaia Mendizabal Nerea Portu
	11:00 12:00	Areto nagusia	7. Gizarte Zerbitzuen Eskutitzaren aurkezpena	Gizarte Hezitzaileek	
Irailak, 22	09:30-10:30	Areto nagusia	8. Gizarte Hezkuntza Practicumaren Jaudunaldiak	NURA	
	10:30-11:30			HEZIZERB	
	12:00-13:00			EMAUS	
	13:00-14:00			GIELMAR	
Irailaren 18tik 22ra astean			9. Tutorearekin 1. mintegia		
Tutorearekin zehaztu egin behar da			10. Gutxienez beste bi mintegi		
2018ko martxoa - apirila. Zehaztu gabe		Areto nagusia	11. Mintegi orientatzailea eta jarraitzeko*	Ikasleek	

\* Jarduera guzti hauek ikasle guztiek egin behar dituzte beharrezkoak direlako, bereziki 11. jarduera.



## **5.2. PRACTICUM II eta IIIko BIGARREN ATALA ZENTROETAN**

(28 kreditu ECTS=700 ordu: 5005aurrez-aurrekoak eta 195 ordu bestelakoak)

Praktiketako Zentroetan garatuko da 2017eko irailaren 25tik 2018ko maiatza arte.

Atal honetan egin beharreko lanaren bidez bultzatuko da: batetik, ikasleak bere rol profesionala eraikitzea, behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez, beste profesional batzuekin elkarlanean; eta bestetik, ikaslea profesional bezala trebatzea, zuzeneko esku-hartzearen bidez.

Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean.

### **GIZARTE HEZKUNTZAKO PRAKTIKAK ZENTROETAN, ZERBITZUETAN ETA ERAKUNDEETAN**

Practicum II eta III-aren zati hau hasierako harreman- eta behaketa-fasea gainditu ondoren ikasleak esku-hartze profesionalean integratzeko moduan antolatuta dago, tituluko profilak berezko dituen gaitasunak gara ditzaten.

Practicumaren ibilbideari dagozkion eranskinak I, V, VI eta VIIa ezagutu eta osatuko dira, beti ikaslea, praktiketako erakundeetako instruktore eta fakultateko tutoreen arteko adostasunarekin.

- Practicuma hasterakoan:
    - Konpromezu Orria
    - XI. Eranskina: Praktika egingo duten ikasleek izenpetu beharreko dokumentua
    - I: Eranskina: Prestakuntza Proiektua
  - Practicum II bukatzerakoan:
    - IV. Eranskina. Instruktoarearen Amaierako Txostena
  - Practicum III bukatzerakoan:
    - IV. Eranskina. Instruktoarearen Amaierako Txostena
    - V. Eranskina: Ikaslearen Amaierako Txostena
    - VI. Eranskina: Ikaslearen tutorearen amaierako balorazio txostena eta egiaztatzea
- I eta VI. Eranskinak tutoreek azalduko duten datetarako word formatoan bidali beharko dira. Eranskinak eta haien inguruko informazio gehiago jarraian aurkezten den helbidean topa daitezke:

<http://www.ehu.es/eu/web/filosofia-hezkuntza-zientziak/anexos>

### **JARRAIPEN-MINTEGIAK ETA LANKETA TEORIKO-PRAKTIKOA FAKULTATEAN**

Mintegiak practicum honetan parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza-esparrua dira, eta, esparru horren baitan, ikasle bakoitzaren Prestakuntza Proiektuaren jarraipenari ekingo zaio. Mintegietan ikaskuntza sortzen eta sozializatzen da eta ezaguerak eskualdatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta; beraz, laguntza-ekoizpen eta komunikazio-guneak dira. Gainera, informazio-iturri garrantzitsuak dira, Gizarte Hezkuntzako lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, parte-hartzea eta praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiarekiko konpromiso profesionala eta soziala sustatuko dituzten ikaskuntzak bultzatzearen

Honako hauek dira intereseko gaietako batzuk: jardun profesionalaren egitura instituzionala eta araudi-egitura, harrera eta haren zentzua hezkuntza-harremanaren ezarpenari begira, ekintza profesionalean barneratuta dauden jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-

hartzearen zentzia eta esanahia, esku hartzeko prozesuen eraikuntza eta abian jartzea, ekintza praktikoen azterketa, harreman profesionalak eta lan koordinatua hezkuntzan, gizarte eta lan-esparruko baldintzak, prestakuntza-beharren proiektzioa.

## 6. PRACTICUM II – IIIKO MEMORIA

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko Azken Memoria egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute. Kontutan izan behar da, publikoki azaltzen den informazioa izenik gabe aurkeztu behar dela. (Ikus 1999ko abenduaren 13ko Datuen Babeserako Legea, 15/1999). Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharrik idatziko ditu eguneroko batean

Txosten horietan hainbat alderdi landuko dira, hala nola:

### MEMORIETAN JASO BEHAR DIREN ALDERDIAK

- Aurkezpena eta ikaslearen datu pertsonalak
- Lehen Atalean idatzitako lana, zentroetara irten aurreko lana
- Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazio eta analisia
  - Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimen eta zentroaren jardura arloa erregulatzen duen araudia.
  - Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.
  - Zentroaren antolakuntza testuinguruak. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.
  - Zentroak garatzen duen ekintzaren esparru sozio-hezitzailea
- Practicum IIan garatutako ekintzaren jasotze eta azterketa
  - Prestakuntza Proiektuaren errebisioa: praktiketako helburuak, landu beharreko gaitasunak, dedikazioa, garatutako eginkizunak eta funtzioak
  - Zentroaren beharren identifikazioa, testuinguru zehatz batean txertaketa, profesional rolari dagokion gaitasunak kontutan izanik.
  - Esku-hartze proiektu baten diseinua, martxan jartzea eta ebaluazioa
    - Praktiketako zentruaren esku hartze proiektu, programa edota ekintzen azterketa
    - Beharren ebaluazioa/detektzioa eta esku hartzearen helburuaren zehaztapena
    - Esku hartze proiektuaren/egitarauaren diseinua eta planifikazioa
    - Proiektuaren kokapena eta hartzaileak
    - Prozesuaren helburuak
    - Metodologia eta hezkuntza estrategiak
    - Denboralizazioa
    - Baliabideen aurreikuspena
  - Martxan jartzearen prozedura
  - Ebaluazioa, mugak eta hobekuntzarako proposamenak
- Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa pertsonala
  - Praktiketako ibilbidea
  - Prestakuntza-ibilbidearen azterketa eta Prestakuntza Proiektuari buruzko balioespena: ezarritako helburuen errebisioa eta ikaskuntzaren emaitzak.
  - Practicumeko lantaldea: mintegietan eta praktiketako zentroan. Ikaskuntzarako ekarpenak

mintegietan egindako lanaren bidez.

▪ Profesionalizazioa: rol profesionala, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua, lanbideko gizarte- eta lan-baldintzak, autopertzepzio profesionala.

▪ Practicumaren balioespen orokorra, norberaren bizipenetan oinarritu

Practicum IIko Txostenean, aurreko gidoiko 1, 2, 3 eta 4. puntuak sartuko dira.

**Urtarrileko bigarren astean zehar aurkeztuko da.**

Practicum IIIko Txostenean, berriz, 5. eta 6. puntuak kontutan hartuko dira eta

**Maiatzaren bigarren astean zehar entregatuko da**

## 7. PRACTICUM II – IIIKO EBALUAZIOA

Bi atal handi hartuko dira kontuan Practicumaren ebaluazioa egiteko: Fakultatean eginiko lana jasoko da lehenbizikoan, eta praktiketako zentroan egindakoa bigarrean. Bi atal horiek gainditu beharko dira Practicuma gainditzeko. Azken nota bi atal horien baloraziotik aterako da, %50ean. Practicuma gainditzeko, bi atalak gainditu beharko dira nahitaez.

Practicum IIko ebaluazioa urtarrean egingo da eta Practicum IIIkoa maiatzean. Horretarako honako adierazle hauek kontutan izango dira:

	PRÁCTICUM II	
	Ebaluazioaren irizpideak	Gehiengo nota
<b>I. Atala</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• 80% gutxiengo asistentzia</li><li>• Aurkeztutako materialaren kalitate akademikoa</li></ul>	0,5 puntu
<b>Mintegiak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Asistentzia eta parte hartzea</li><li>• Eginkizunen gauzatze maila</li><li>• Ibilbidearen hausnarketarako sakontze maila</li></ul>	2 puntu
<b>Txostena</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Txostenaren egitura eta irizpideekiko egokitzapena</li></ul>	2,5 puntu
<b>Zentroaren ebaluazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Zentroari dagokio</li></ul>	5 puntu

Lehen Atalari dagokionez eta duen garrantzia aurreikusiz, antolatutako ekintzen %80ra ez joateak, dagozkion 0,5 puntu ez gehitzea eta lortutako azken notari 0,5 kentzea suposatuko du

	<b>PRACTICUM III</b>	
	<b>Ebaluazioaren irizpideak</b>	<b>Gehiengo nota</b>
<b>Mintegiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Asistentzia eta burutu beharreko lanak egitea</li> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Komunikaziorako trebetasunak egoki erabiltzea</li> <li>• Lan kooperatiboa mintegietan</li> </ul>	2,5 puntu
<b>Txostena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko irizpideekiko egokipena : <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Antolaketa eta forma</li> <li>▪ Hizkuntza egokia eta argumentazioa</li> <li>▪ Sakontzea eta edukien esanahiak</li> <li>▪ Esku hartze proiektuen lorpenak</li> <li>▪ Rol profesionalaren egokitzapenak</li> <li>▪ Ibilbidearekiko hausnarketa</li> </ul> </li> </ul>	2,5 puntu
<b>Zentroaren ebaluazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zentroari dagokio</li> </ul>	5 puntu

### 7.1. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeke edo baloratzeko garaian:

- Fakultatean antolaturiko jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joan den eta zer-nolako parte hartzea izan duen.
- Trebetasun sozialak izatea kideekin mintzatzeko eta erlazionatzeko.
- Estrategia eta prozeduren garapena eta erabilera praktika profesionallean.
- Practicumaren Azken Memoria: ebaluazio irizpideak
- Memoriaren irizpideetara eta egiturara egokitzea:
  - Argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztean. Unibertsitateko eskakizun maila beteko du dokumentuaren erredakzioak
  - Zehaztapena, zorroztasuna eta argitasuna dokumentuaren azalpenean eta argudioak ematean. Lanbideko berezko hiztegia behar bezala erabiltzea
  - Eginiko praktiken inguruko azterketan eta gogoetan sakontzea
  - Garatutako lan arloan Gizarte Hezkuntzako profesionalaren eginkizunekiko egokitzapena eta konpromisoa. Profil profesionalaren azterketa eta hausnarketa karreran zehar landutako ikasketa-zientzia prestakuntzaren esparruan.

### 7.2. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

Practicum II eta IIIa amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori aldez aurretik jasoko du, eta bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

- Praktiketako zentroko instruktoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian
- Aldez aurretik hitzartutako egutegiak eta ordutegiak bete dituen.
- Bere zereginak bete dituen, halakotzat hartuko dira dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsu eta burutsua.
- Talde profesionalen esparruan izandako elkarlana, ekimenerako gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea.

## 8. KONTAKTU INTERESGARRIAK

- Practicumeko Dekanordetza: **Maggie Bullen** (Tfnoa: 943-015496)
- Practicumeko Koordinatzailea: **Hilario Murua** (Tfnoa: 943-015515)
- Zentroko Teknikoa: **Mertxe Torres** (Tfnoa: 943-015562)

## 9. PRACTICUMARI BURUZKO LEGEDIA

Practicumari dagokionez, indarrean dagoen legedia honako hau da:

- 1707/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, unibertsitateko ikasleek kanpoan egiten dituzten praktika akademikoak arautzen dituena.

<http://www.boe.es/boe/dias/2011/12/10/pdfs/BOE-A-2011-19362.pdf>.

- Ikasleen Kanpoko Praktika akademikoen araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluak onartuta.

[http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas\\_grado](http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas_grado)

- (2004) Gizarte Hezkuntzako Deontologia Kodea. Toledo.

<http://www.eduso.net/red/codigo.htm>